BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

947

EBAZPENA, 2014ko otsailaren 17koa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko urriaren 22ko Aginduaren bidez araututako laguntzak ematen dituena; agindu horren bidez, diru-laguntzetarako deia egiten zitzaien Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeei eta udal-titulartasuneko ikastetxe publikoei, 2013-2014 ikasturtean jarduera osagarriak egin ditzaten.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko urriaren 22ko Aginduaren 11. eta 12. artikuluek diotenez (agindu horren bidez, deialdia egin da, 2013-2014 ikasturtean, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatuetan eta udal-titulartasuneko ikastetxe publikoetan atzerriko hizkuntza indartzeko ikastaroak eta berrikuntza-jarduerak egiteko laguntzetarako), Lanbide Heziketako sailburuordeak, Balorazio-batzordearen proposamenez, ebazpena emateko eskumena du, agindu horren babesean aurkeztutako eskariei buruz. Horretarako, sei hilabeteko epea izango da, aipatutako agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da, jakinarazpen-ondorioetarako, eta aipatu beharko da zein diren laguntza jasotako erakundeak eta zein diren onartutako zenbatekoak.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Balorazio-batzordeak proposatuta, diru-laguntzak ematea I. eranskinean zerrendatzen diren ikastetxe onuradunei, jarduera osagarriak egin ditzaten, betiere Aginduaren 4., 7., 8. eta 9. artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.

2. artikulua.– Aginduaren 2. artikulua ez betetzeagatik honako ikastetxe hauek aurkeztutako eskariak ezestea: CPES San Miguel-Vda de Elizaran BHIP; CPES María Inmaculada BHIP, Donostiakoa; CPEIPS San Frantzisko Xabier Ikastola HLBHIP, Arrasatekoa; CPES Ibar Ezkerra Ikastola, S. Coop. BHIP, CPES María Inmaculada BHIP, Bilbokoak; eta Ana Monge Arocena.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau ikastetxeei jakinarazten zaienetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 17a.

Lanbide Heziketako sailburuordea,
JORGE ARÉVALO TURRILLAS.

ERANSKINA

DEIALDIAREN EBAZPENA - 2013 - JARDUERAK

	KODEA	UDALERRIA	IKASTETXEA	DIRU-LAGUNTZA
1	010201	Laudio	IES Municipal Llodio BHI	39.182
2	010248	Vitoria-Gasteiz	CPES Egibide BHIP	117.383
			GUZTIRA ARABA	**156.565**
3	012746	Andoain	CPEIPS La Salle Berrozpe HLBHIP	63.487
4	012394	Andoain	CPES Esc. Cine y Video-Zine eta Bideo Eskola BHIP	16.083
5	012456	Arrasate	CPES Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, José M.ª Arizmendiarrieta S.C. BHIP	58.097
6	012491	Donostia	CPES C.D.E.A. BHIP	56.047
7	012497	Donostia	CPES Cebanc BHIP	64.508
8	012498	Donostia	CPES Ceinpro BHIP	43.443
9	012479	Donostia	CPES Centro de estudios A.E.G. BHIP	64.731
10	012490	Donostia	CPES Nazaret BHIP	60.842
11	012742	Irun	CPES Irungo La Salle BHIP	65.374
12	012581	Ordizia	CPES del Goierri BHIP	66.878
13	012566	Tolosa	CPES Tolosako Inmakulada Ikastetxea BHIP	36.444
14	012572	Urnieta	CPES Salesianos Urnieta BHIP	50.496
15	013380	Zarautz	CPES Oteitza Lizeo Politeknikoa BHIP	52.214
16	012593	Zumarraga	CPES Urola Garaiko Lanbide Eskola BHIP	67.318
			GUZTIRA GIPUZKOA	**765.962**
17	014664	Bilbao	CPEIPS Salesianos Deusto M.ª Auxiliadora HLBHIP	60.618
18	014615	Bilbao	CPES Almi BHIP	30.372
19	014631	Bilbao	CPES Ceinmark BHIP	12.247
20	014633	Bilbao	CPES Cruz Roja BHIP	12.057
21	014634	Bilbao	CPES Esc. de Química y Electrónica BHIP	18.392
22	015069	Bilbao	CPES Fundación Peñascal BHIP	37.504
23	014669	Bilbao	CPES Mikeldi BHIP	18.834
24	014635	Bilbao	CPES Oscus - Dolores Sopeña BHIP	12.308
25	014680	Bilbao	CPES Otxarkoaga BHIP	70.897
26	014696	Bilbao	CPES San Luis BHIP	32.559
27	014718	Bilbao	CPES Zabalburu BHIP	53.009
28	014837	Derio	CPES Txorierri S. Coop. Ltda. BHIP	59.150
29	014728	Durango	CPES San José Maristak BHIP	63.598
30	014845	Loiu	CPES Esperanza Alhama BHIP	7.490,54
31	014775	Markina-Xemein	CPES Lea-Artibai BHIP	67.359
32	014779	Muskiz	CPES Somorrostro BHIP	93.043
33	014810	Santurtzi	CPEIPS San Jose De Calasanz HLBHIP	58.194
34	014824	Sopuerta	CPEPS San Viator LBHIP	67.422
35	014828	Zalla	CPEIPS Maristas-San Miguel HLBHIP	11.852
36	014723	Zeanuri	CPES Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegia BHIP	44.922
			GUZTIRA BIZKAIA	**831.828**
			GUZTIRA	**1.754.354,54**